



ERREENTERIAN BIZI

MIKEL UGALDE

"Horrelako gauzak Erreenterian baino ez dituk gertatzen". "Gauzak baretu ahal dira Erreenterian?" "Morala behar dik gaurregun Erreenterian bizitzeko..."

Horrelako gauzak sarritan, sarriegitan, entzun ohi ditut zutaz, penaz, minez eta tristuraz. Ospe haundiko herria zinen, askok eredu bezala hartzen zindun, Lana eta kultura, lurra eta itsasoa, umorea eta seriotasuna, iragana eta etorkizuna, ongi lotu ohi zenituen. Garai batetan ttipi eta ahul bazinen ere, gerora, gainontzeko herrien antzera, haziz eta biziz joan zinen. Kalea eta baserria, kanpotarra eta bertakoa, zaharra eta gazteak lotuago eta elkartuago ote zeunden susmoa dut. Iragan denbora da hori, zure kondaira apala. Gaurregun besterik ikusten dut zure baitan, nere sorterriaren baitan, batzuek Orereta nahiko luketen Erreenteria muinean.

ERANTZUNIK EZ

Zergatik zaitugu zeran bezalakoa? Zergatik gertatzen dira Erreenterian bestetan gertatzen ez diren fenomenoak? Zergatik hemen bai eta han ez? Zer dela eta eman da Erreenteria zure baitan horrenbesteko aldakuntza? Zergatik?... Lehenago zera esan ohi genuen, inon ezer onik sortzen baldin bazen Erreenterian sortua izango zela. Orain ez nintzateke beste horrenbeste esaten ausartuko. Errekan ibilian ez doan ura usteldu egiten da. Bizitzak bere mugitzea, aurreratzea, aldaketa eskatzen du. Baina nolabaiteko aldaketak ez du, berez, besterik gabe, bizia sortarazten duenik adierazi nahi.

Benetan desegokiro hazi izan zera, Erreenteria. Industria-gintzaren bidetik ongi abiatu zinen, lantegi ugari ezagutu zenuen. Era askotako gauzak egiten ziren Erreenterian. Oraindik gogoan dugu duela urte asko, Biteri eskoletan, Erreenteria-ko lantegiek eginiko gauzez prestatutako erakusketa. Hantxe

zeuden paapel sollo haundiak, Carasaren produktoak, Similcuerorenak, Paisa, eta hainbat eta hainbat gauza. Europa mailan industriad aberatsenetakotzat jotzen zen Erreteria. Bazen lanik garai hartan. Eskolatik lantegirako pausoa erraz ematen zen.

ETORKINAK ETA GU

Urte haietan zu, gure herria, zenbaitek Orereta nahi duen arren zure gaituzun Erreteria, arras aldatu zinen. Galtzarabardako zelaiak, Alabarga baserriko lurraldeak, Beraungo gaina, Sorgin-zulo inguruak, Larzabal, Markola "basoa"... guztiz etxez bete ziren. Etxadi horiek gehienak kanpotar jendez, etorkinez, bete ziren. Gure herrian garrantzi haundiko zerbait gertatzen ari zela konturatzen ginen. Zuk, Erreteriak, eman zenuen aldaketa garrantzi haundikoa zela oharturik geunden. "Kanpotik etorria den jendea hemen agintzen jarriko ote zaitugu?" entzun zitekeen behin baino gehiagotan. Zure buruaren jabe ez zinen eta horrelako aldakuntza gogorra jasan beste erremediorik ez zenuen izan. Zenbaiten interes ekonomikoak, eta Francoren aginte politikoak, begi onez ikusten zuen horrelako gertaera.

Eta zu, nere herria, Erreteria, lehenago hain polita ez bazinen ere, geroztik erabat itsusiturik geratu zinen. Industriak hanka egin zuen, beste zenbait lantegi itxi egin zen, eta zuk hotel haundi baten antza hartu zenuen. Egunean zehar lana kanpoan egin ondoren, oheratzerakoan etortzen zitzaizkizun herrira herritarrek. Hau neumoniarena baino askoz gertaera atipikoagoa zen, eta hau merio zela, ondoriorik izan zen.

Etorkinen eta bertakoen harteko harremana, integrazioa, erabatekoa den ala ez den, besterik da. Erreterian, nere herrian, zure baitan, bizi izan dira, eta erreteriar bezala jokatuz bizi izan dira. Etorkin horien semealabak inor baino erreteriarrogatzat jotzen du bere burua.

Baina zu, Erreteria aldatuz joan zera.

Eta zure historia hain atipikoa delarik zure jokaeretan ere berezia izateaz zergatik arritu?

EUSKALDUN ETA ABERTZALE BEHAR

Oraindik ere bada Euskal Herrian bi talde edo komunidade bizi direla dioenik. Horien iritziz, zu Erreteria, desegoki hazia zera. Eta gauzak erabat konpontzerik ez dagoenez gero, nolabait erdibitza ikusten dute komenigarritzat: bertakoak bertako partido eta erakundeetan sar ditezela, eta etorkinek beste talderen batetan toki egokiagorik izango duen ustetan ari dira jokatzen.

Gure iritziz, jakina, Erreteria herri langileak abertzale behar du izan, eta luzarora gabe euskaldun.

"Balizko olak burdinik ez" dio euskal esaera zaharrak. Erreteria, zu zeu, beste era batera hazi izan balitz, beste era batera haunditu izan bazina, zure buruaren jabe izan bazina... Baina gauzak hor daude. Eta ni erreteriarrok bezain herritar, abertzale ez ote garen beldur naiz. Datozen hauteskundeek emango dute argitasunik, eta euskal taldeen botoak Erreterian behera joango balira, horrelakorik nahi ez dugun arren, ez nintzateke arrituko. "Geroak esan beza" zioen Orixek, eta Erreterian geroak esan egingo duela ez dago dudarik.

IZANA ETA IZENA

Erreteria, zure izana aztertu ondoren zure izena ere aldatu egin behar den iritziko agertu da zenbait gure artean oraindik orain. Asmo onenez dabilta kondairaren iturrietan xurgatuz Orereta deitura bidezkoagoa litzatekeelakoan. Nik egia esan, Erreteria zeran bezalakoa nahi zaitut, eta izenaren desegokiak baino izanaren mundu nahasiak gehiago kezkaraziko ninduke. Orereta baino maiteago dut Erreteria.

Dena den, sasijakintsuz hain orniturik gabiltzan honetan, dakienak esan beza eta jarraituko gatzazkio.

Oraingoz, eta besterik ezean, agur Erreteria.